

BERGARA / Liburutegiak irakurketa kalera gerturatuko du

Bergarako udal zerbitzua bihar herriko plazan egongo da kokatuta

Bergara. Eusko Jaurlaritzaren kultura sailak Irakurri 2007 Kanpaina jarriko du abian eta Bergarako udal liburutegiak bat egingo du egitasmo honekin. "Gure herrian dugun ezagutza, kultura eta informazioa herritarrengana zabaltzeko asmoa dugu", azaldu zuten antolatzaileek. Beraz, bihar Liburutegien Eguna ospa-tzeko, kalera irtengo dira ohiko eskaintza jendeaurrean jartzeko. Ekitaldia herriko plazan izango da eta, bertan, mailegu zein bazkide txartela egiten dutenek opariak jasoko dituzte trukean.

Bestalde, autonomia erkidego osoko 12 eta 16 urte bitarteko DBHko ikasleek Liburua ageri duen erretratua izeneko lehiaketan parte har dezakete. Horretarako, egindako argazkiak CD formatuan udal liburutegian aurkeztu beharko dituzte azaroaren 15a baino lehen. Halaber, guraso eta hezitzaileentzat gida bat ere eskuratu ahal izango da ostegunetik aurrera. Ekimen honen xedea hiru eta bost urte bitarteko haurrei irakurketa hurbiltzea da.

Halaber, herriko hainbat tokitan liburuak erabilgarri egongo diren erakusmahaiak jarriko dituzte azarotik aurrera.>a.d.